

## KIROLDEGIAREN GABEZIA

*Gure herriko kiroldegia, urteak pasatzen doazen bezala azkenerako behera erortzen ari dela nabari da.*

Maren Mosquero, Nerea Iturralde eta Loraine Bergara

Andoaingo kiroldegia bi eraikinez osatuta dago. Lehenengo eraikinean, kantxa urdin bat dago, bertan eskubaloia, saskibaloia, futbol sala... kirolak egiten dira, eta horiek jolasteko lerroak ageri dira lurlean marrazturik, kolore desberdinekoak. Horiek lasai jolasten uzten digute, bakoitzak nahi duen kirolera. Harmailak handiak dira, pixka bat zaharkituak, baina onargarriak arratsaldea pasatzeko. Horrez gain, kantxa horretatik ateratzen bagara korridore bat edukiko dugu, hantxe gimnasioa daukagu, bestalde, Spinning egiteko aukera badaukagu ere bai. Komunak eta dutxatzeko instalazio bikainak baitare.



Bigarren eraikinean, futbol zelaia eta atletismoko pistak ditugu. Zelaia handi eta berri bat ageri da, eta inguruan atletismo pista bat dago. Zelaiaren ezkerrean ikus dezakegu beste harrizko kantxa bat dagoela. Bertan eskubaloia eta saskibaloia egiten dira, estaltzen duen karpa zuriak ahalegintzen du kirol hauek bertan praktikatzea euri egunetan eta guzti.

Kiroldegiaren kanpoko zatiak kontutan hartzerakoan, aldagelak eta harmailak oso egoera onean ageri dira. Ubitarteko sarrera ondo egokituta dago, erdialdetik eta eskuinaldetik igotzeko eskailerak daude, ezkerrean aldapa. Aldaparen bukaeran, bizikletak eta patineteak uzteko tokia dago nahi izanez gero. Ubitartera sartzean, ezkerrean galdutako objektuen gela bat dago, eta ondoan harrera. Eskuinera buelta emanez gero, bilera gela bat ageri da, bertan bileraz gain, hitzaldiak, dinamikak zein askariak egiten dira. Bilera aretoaren jarraian taberna bat dago, eta bukaeran komunak, elbarri, gizon eta emakumeentzat.

Harmailen beheko aldera joanez gero, erdialdean, tunel edo korridore moduko bat ageri da. Bertan, berantz doan aldapa batek aldageletara eramaten du. Esquinean fisioaren gela dago, eta albo batean materialaren gela. Honen jarraipenean lau aldagelak ditugu, toki asko eta dutxa honekin. Ezkerrean berriz, aldagelen ondoren arbitroen aldagelak eta neska zein neska-mutilen komunak daude.

### **HOBKUNTZAK KIROLDEGIAN**

Futbol zelaiako harmailtako aulkiak egia esan ondo daude, baina kopurua txikia dela uste dugu. Partida askotan harmaila guztia betetzen da eta zutik zein albo batean ageri diren harrizko eskaileretan eseri behar izaten dute

ikusleek, harmailetan leku gehiago ez dagoelako. Beste alde ezkor bat euri egunetan lehen eta bigarren ilaran ezin dela eseri da, euriak bi lerro hauek bustitzen ditu. Beraz, euri egunetan jende asko joango den partidu bat dagoenean, aurreko ahulki lerroak ez dira erabiliak izaten eta ikusle asko zutik ageri dira, pilatuta.

Honako hau ikusita, harmaila estaltzen duen teilatua aurrerantz handitu daiteke eta harmaila ere ezkererantz handitu, jende kopuru gehiago sartzeko eta euri egunetan lehen ilarako eserlekuak erabil daitezten.



Barruko kantxan harmailak oso erabiliak daude, beraz, arratsaldean ordu asko egoten garenean eserita, hauts zuri bat agertzen da zure arropa zikinduz. Horrez gain, ez daude ondo zainduta, beraz eserleku asko aurrera mugitu, atzera mugitu, edo ez daude. Nahiz eta kantxaren bi aldeetan egon harmailak, batzuetan txiki geratzen dira, jende asko joaten delako partidak ikustera. Gainera, partida zailtan joaten den jendeak dena zikina uzten du, plastikozko poltsa, latak, botilak... jendea eseri gabe ez geratzeko harmailak zuzendu eta

falta diren eserleku kopuruak berriro ere jartzea komeniko litzateke.

Harmailen konponketak egiterako garaian, lehenetsuna kiroldegi barruko harmailak dutela iruditzen zaigu. Asteburuetan eta eguraldi txarra egiten duen egunetan (askotxo direla Euskal Herrian), gehiengo eskubaloia, futbol sala edo eta saskibaloia ikustera joaten da.

Azkenik, galdetegian, %90eko erantzunak kanpoan egin duten “kantxa” eraldatzeko edo eta aldatzeko eskaerak dira. Urtebete iraun dute egiten, eta egia da ez duela arrakasta handirik eduki. Euria egiten duen egunetan busti egiten da, kontuan hartuz eskubaloian ezin dela busti ez kantxako zapatilak ez eta baloia, gaizki ibiltzen gara, horrez gain, haize handiko egunetan, karpa mugitu egiten da, eta arrisku puntua ikusten dugu.

## GALDETEGIAREN ERANTZUNAK

Gai honi buruz, zerbait gehiago jakin dezazuen, galdetegi bat bidali genien DBH 4B-ko ikasleei. Eta bertan kiroldegiarekin zerikusia zuten hainbat galdera jarri genituen. Gaur egungo gazteak, txikitatik hasi ziren bertara joaten, %22,7-a 1-3 urterekin hasi ziren, %27,3-a ordea 3-6 urterekin hasi zen, baina ehuneko portzentaje handiena, 6-9 urte bitartean izan zen, %31,8-a sartu baitzen kiroldegietako jardueretan. Argi dago, txikitan arrakasta handien edukitzen duen jarduera igerilekua dela, %90,9-a joaten baitzen. Baina helden joaten garen bitartean, beste hainbat kirol praktikatzeko joaten dira gazteak, futbola eta eskubaloia adibide.

MULTIMEDIAKO AUDIOA → [Multimediako audioa](#)

